



DONOSTIA WEEKINN ASTEAREN X. EDIZIOAK GAZTEEN ETA EMAKUMEEN EKINTZAIETZA ETA PARTE HARTZEA DITU ARDATZ

- *Ekintzailtza Berritzailearen Topaketa eta Enpresa Berritzailearen VIII. Sariak banatzeko Gala dira Donostia WeekInn - Berrikuntzaren X. Asteko bi hitzordu nagusiak, Kursalen egitekoak biak. Ekitaldiaren leloari jarraituz, gure hiria ekintzailtzarantz eta berrikuntzarantz abiatuako eSpedizio batean murgiltzea da ekimen honen helburua.*
- *Marisol Garmendia: "Donostiak zientzia- eta berrikuntza-hiri gisa duen lekua finkatzeko eta bultzatzen jarraitzeko, bokazio zientifiko tekniko berrietatik eta emakumeen talentua erabat txertatzetik bakarrik etorriko den bultzada behar-beharrezkoa da. Hazi nahi badugu, gazte eta emakume ekintzaileak behar ditugu."*

Ekintzailtza eta Bertako Enplegurako Zinegotziak Donostia Sustapenaren bitartez antolatuta, Donostia WeekInn - Berrikuntzaren X. Astea azaroaren 27tik 30era egingo da. Esan bezala, gure hiria ekintzailtzarantz eta berrikuntzarantz abiatuako eSpedizio batean murgiltzea eta Donostiak zientzia- eta berrikuntza-hiri gisa duen lekua finkatzea dira ekimen honen bi helburu nagusiak. Aurreko bederatzi edizioetan, Donostia WeekInn Asteak 380 jarduera eraman ditu aurrera eta bertan 33.000 parte hartzaile izan ditu, horien artean 7.500 ikasle eta 500 kolaboratzaile baino gehiago.

Ekintzailtza eta gazteen eta emakumeen parte hartzea izango dira hamargarren edizio honetako ardatz nagusiak, azaroaren 29an Kursalen egitekoa den Ekintzailtza eta

Berrikuntzaren aldeko Topaketarekin batera. Startupak, ekintzaileak, enpresak eta arloko erakundeak elkarrekin lotuko dituen konexio gune bat sortzea da jardunaldiaren helburua. Ekitaldiak gazteei eta emakumeen ekintzaitzari gordetako espazioak eta jarduerak eskainiko ditu, startupek aurre egin beharreko erronka nagusiei helduko die eta inbertitzaile potentzialak ezagutzeko lana erraztuko du. Kultura ekintzailea presente egongo da hackathon batean eta ekintzaitza berritzaileari buruzko mintegi trinko batean (batxilergoko, LHko eta unibertsitateko ikasle gazteei zuzenduak biak).

Marisol Garmendia Ekonomiako eta Bertako Enplegurako zinegotziak adierazi duenez, "Donostiak zientzia- eta berrikuntza-hiri gisa duen lekua finkatua dago, eta etorkizunean proiektioa izango badu, behar-beharrezkoa da belaunaldi berriak eta emakumeen talentua ekintzaitza berritzailearen barruan txertatzea. Gaur egun, 6.000 pertsonak egiten dute lan ikerketaren esparruan, eta 2022an I+Gko 188 enpresa sortu ziren. Zifra horiek EAEko eta Estatuko batez bestekoaren gainetik daude, baina hazten jarraitzeko eSpedizio batean murgildu beharra daukagu, eta hori bakar-bakarrik izango da posible bokazio zientifiko tekniko berriak bultzatuz eta emakumeen talentua osorik baliatuz. Berrikuntzaren X. Asteak errealitate hori agerian jarri nahi du. Hazi nahi badugu, gazte eta emakume ekintzaileak behar ditugu".

Belaunaldi berriei ekintzaitzaren errealitatea hurbiltzeko asmoz, Ekintzaitza eta Berrikuntza Topaketaz gain, Donostia WeekInn Astearen hamargarren edizio honek jolas, dibulgazio eta prestakuntza jarduera ugari ere izango ditu. Ekintzaitzarekin lotutako trebetasunak indartzen dituen "Escape Room" batetik hasita; gazteek euren garapen profesionalari buruzko kezka transmitituko dituen antzerki-lan batekin amaituta; eta errealitate areagotuko tailerrak eta Realaren lankidetzaren duen futbol eSport lehiaketa bat (Reale Arenan egingo dena, RB Salzburgo Championseko partiudan lehen) ahaztu gabe.

Era berean, eta "Emakumeak Zientzian" elkartearekin lankidetzan, ekitaldi bat antolatuko da emakumeek zientzian betetzen duten zeregina ikusarazteko eta STEAM bokazioak areagotzeko; horrela, gure hirian lan egiten duten emakume ikertzaile zientifikoek beren esperientziak partekatuko dituzte eta historiako emakume zientzialari handi batzuei omenaldia egingo diete.

Iñigo Olaizola Donostia Sustapeneko zuzendari nagusiaren ustez, "hamargarren edizio honek hiri gisa eta Sustapen Sozietatetik bertatik zientzia eta berrikuntzaren alde egiten dugun apustuaren ezagutza eta sozializazioa indartu nahi ditu, gure garapen sozioekonomikorako funtsezko ardatz eta sektore gisa. Apustu hori dagoeneko enpleguaren % 30 eta hiriko BPGaren % 43 da, eta, hein handi batean, eragileen ekosistema trinko eta askotarikoari esker egiten dugu, eta eskerrak ematen dizkiegu Berrikuntzaren Aste honetan laguntzeagatik eta parte hartzeagatik. Eta horixe da, hain zuzen ere, lankidetzaren garrantzia, berrikuntza eta ekintzaitza bultzatzeko funtsezko osagai gisa, X. WeekInn honetan nabarmendu nahi dugun mezuetakoa bat".

Aurtengo edizioan, Donostia WeekInn Asteak publiko orokorrari zabalduko dizkio atearak pertsona ekintzaileen eta tokiko zentro teknologikoen eskutik emango diren hitzaldi dibulgatzaileen bidez, betiere donostiarrekin konektatzeko helburuarekin eta hiriaren dinamika zientziaren eta berrikuntzaren ikuspegitik zabaltzeko xedez. "Zientziarako eta Berrikuntzarako Doako Barra" izenpean, jarduera hau hilaren 27an, 28an eta 29an izango da hiriko hainbat tabernatan, hau da, giro informal eta hurbil batean, ezagutzak esperimentatzeko eta partekatzeko.

Enpresa Berritzailearen VIII. Sariak banatzeko Galak emango dio amaiera Donostia WeekInn Astearen X. edizioari. Sari horiekin, Donostia Sustapenak enpresa-proiektuetan berrikuntzaren aldeko apustu irmoa egin duten eta hirirako erreferente diren enpresak aintzatestu eta saritu nahi ditu. Galan, Enpresa Gaztearen eta Enpresa Finkatuaren kategoriako sariak entregatuko dira; horrez gain, hiriko berrikuntzarekin konprometiturik dagoen erakunde bat ere aintzatetsiko da.

Lankidetzaren aldeko apustua

Berrikuntzaren X. Astea, Donostia WeekInn, honako erakunde hauen lankidetzari esker antolatu ahal izango da: Aevan | Aspegi | BA ESADE | Batea Consulting | Babson College | BCBL | Bibagu | CDTI | CFM - Centro Física de Materiales | CIC biomaGUNE | CIC NanoGUNE | Cidetec | Cimico | Clave Capital | Collagen VI International Research Summit | Cybersurgery | Deportes Apalategui | DIPC - Donostia International Physics Center | FALP | Geroa | Easo Politeknikoa | Easo Ventures | EIT Manufacturing | Emakumeak Zientzian | ENISA | EOI - Escuela de Organización Industrial | Facultad de Química de la UPV/EHU | Grenoble Alpes Metropole | Health XR Pro | ICEX | IIS Biogipuzkoa | Kibo Ventures | Linqcase | Madrid Harvard Club | Naru Intelligence | Nesu Technologies | Nuuk Technologies | Onena Medicines | Orza | Pinama Investors | Polykey | Polymat | Real Sociedad | Sabelec | Silvia & Spyglass | Startup Lisboa | Tecnun | Trak Health Solutions | Universidad de Deusto | UPV/EHU | Zabala Innovation Consulting | Zelula Biopharma

Jarduera nabarmenak

Berrikuntzaren Astearen programazio osa eta ordutegia iada www.fomentosansebastian.eus orrialdean ikus daiteke.